



KAPITAIN FRAKASA

Anjel Lertxundi

n a r r a t i b a o

erain

KAPITAIN FRAKASA

Narratiba, 136

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko urrian

Azala:

Erein

Azaleko irudia:

Marcel Camé-ren *Le quai des brumes* filmeko fotograma bat

Maketazioa:

Itxaropena

© Anjel Lertxundi

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-616-0

L. G.: D 1220-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

Anjel Lertxundi

KAPITAIN FRAKASA

Remake bat



FRAKASAK, [...], zeinak ezin baitu izan bigarren mailako pertsonaia baino, ausarta izan nahi luke fede osoz; atsegin du ausardia, gustatzen zaizkio ausartak, eta haserretu egiten da bere buruarekin kol-darra izategatik.

Théophile GAUTIER,
Le Capitaine Fraccase

I

1

UR HOTZAREN NEURRIA, eztarriko lakarraren aringarria, onetsi nion pastisari. Egunkari erosi berria zabaldu nuen, nahiz ondo nekien berandu gertatu zela Moniquerena eta egunkariak ez zutela ezer ekarriko haren hilketaz. Albiste bakar batek ere ez zuen nire arretarik bereganatu, baina egunkaria zabalik nuela segitzen nuen, aurpegia gordetzeko. Ahots zorrotz bat entzunda, burua jaso nuen susto batean. Neska bat neukan aurrez aurre, esku bat nire pareko aulki zurian jarrita. Soineko berde bat zeraman. Berdeak zituen begiak. Libre al dago?, galdetu zidan, eta nik ezer erantzuterako, nire mahaira eseri zen.

Desenkusatu egin zitzaidan eman zidan sustoarengatik. Bazegoen urduri eta atezuan jartzen ninduen zerbait deigarria neskaren tenperamentu irmoan, bere buruaren kontrolean.

Nire ustea baietsi nahi izan balu bezala, libreta tankerako bat atera zuen sorbaldan zintzilik zeraman larru ziratzuko poltsa beltzetik. Mahaiaren erdian laga zuen.

Pasaporte azal gorrikara bat.

Ezker-eskuin begiratu nuen bihotza kolkoan. Inor ez guri begira, jenderik gabe segitzen zuen taberna triste

hartako terrazak. Urduritasuna areagotu zidan ezezagun batekin hitz egin beharrak; ezezaguna emakumea bada, izerdi-usaina hartzen du nire urduritasunak. Egun hartako ezinegonaren izerdiak bazuen, ordea, beste motibo bat, eta zen izua, nahiz pasaporteak, begiratu batera, legezkoa zirudien. Agian, horrexegatik. Dokumentua zabaldu eta orri bat erakutsi zidan. Marseillako prefet-etxeke zigilua zera-man. Eta, azpian, pasaportea baimentzen zuenaren izen-deiturak, inoiz entzun gabeak, baina errubrika ezagun batekin, omega-edo baten trazuarekin bukatzen zena. Franz Gleizes deitzen genion guk errubrikaren egileari. *Otsobeltz* ere bai.

Neskak erakutsi zidan nazio bisitatu ezinen zerrenda luzearen orria ere. Pasaporte hark balio zuen, ordea, Italia-ra itzultzeko, eta, okerreanean, aski zitzaidan aukera bakar huraxe.

—Oker zaude, nahastu egin zara; ez naiz uste duzuna —bota nion, ordea, emakumeari.

Eguzki mazalaren galdak bortizki egin zuen distira neskaren hortzerian. Destainaz agindu zidan:

—Begiratu dena ondo dagoen!

Pasaportea seinalatu zuen buruarekin keinu haidorra eginez. Zain neuzkan neskaren begiak nik dokumentua noiz hartuko. Ez nuen zirkinik egiten: pasaporteei beti hartu izan diet arriskuaren traza, baita lurralde eta garai lasaienetan erakutsi daitekeen legezkoenari ere. Justiziarekin arazorik ez duen nor ondratu bat dela adierazteko asmatua, zure fidagarritasuna ziurtatu behar luke, ez zarela klandestinitatearen lanbrotan babesten den sator bat.

Ezin, ordea, pasaportearen jabea herritar prestu bat denik jakin, eta jendarmeez bekozko zimurrarekin begiratzen dizute beti, batez ere zure itxurari:

Passport? Reisepass? Passaporto?

Kontrola hizkuntza guztietan mintzatzen da.

Mahaitik jaikitzeke keinua egin nuen.

Neskak besotik heldu zidan eta eser nendila agindu zidaten haren begi berdeek. Ezpain arteko irribarreak ez zion begirada autoritarioa leuntzen. Aitzitik. Ezin nintzen iheska hasi jakin gabe nork bidalia zen. Nekiena zen kontrolatuta nengoela, neskaren presentziak ondo adierazten zidan bezala. Obeditzera deliberatu nintzen. Aulkian hondoratu eta hankak aurreratu nituen, baina neskaren zapata-puntak ez ukitzeko tentuarekin.

Pasaporteko beste orri bat zabaldu zuen. Nortasun datuen orrialdea. Bertan, nire argazki bat. Moniquek ateratu zidan Polaroid tzar batekin. Egun hartan egin nintzen argazkian neraman kanadiar estiloko zamar gorri-beltzaren jabe ere. Nire urtebetetzea zen, Moniquek oparitu zidan. Argazkiaren egunean ez generaman denbora askorik elkarrekin.

Itsas haizeak kresal-usaina barreiatu zuen, gaueko gertakarien oroitzak mikaztua. Baina ez nuen mikaztasunean goxo egiteko aukerarik, zeren neskak berean segitzen zuen: eginkizun batekin etorri zen nigana, ni ez nintzen haren misioaren objektu huts bat baino, eta presa zuen amaitzeko. Hatz erakuslea, fin-fina, dantzatu zuen airean eta seinalatu egin ninduen alegiazko florete batekin mehatxu eginez bezala:

—*Touché!*

Paradoxa badirudi ere, hitz bakarraren ironiak humanizatu egin zion ordu arte liztor batena ematen zuen ahots-tinbrea, baina kolpean beste *touché!* bat, neskarena baino ozpinagoa, piztu zitzaidan oroimenean suziri baten moduan: Gerald D-k sarritan erabiltzen zuen espresioa, hark ere hatz erakuslea florete bat bailitzan dantzatzuz, baina ahoa zabaldu gabe, afizio handia baitzion sabeliztun gisa jarduteari.

Baina Gerald D-ren laguntza zen une hartan espero nezakeen azken miraria.

INOREN ERRUKIAK, are gutxiago Gerald D-ri hain tantaka zerionak, lor zezakeen nik ahaztea, are gutxiago barkatzea, Moniqueren hilketa, kontatzen hasi naizen guztiaren arrazoia. Adabakitan harilka dezaket adabakitan ezagutzen dudana, eta neskak pasaporte eskaini zidan egunari buruzkoa da lehen adabakia. Momentu hura bezain garden lortuko banu nire garai hartako oroitzapen garrantzitsuenak harilkatzea, horrek ez luke Monique berpiztuko, baina lortuko banu orduan nenbilen estolderietan argi eginez gaurko nire baitako estolderian argi egitea, asko nuke.

Ez nuen espero Gerald D nitaz ahaztea ere, aspalditik irentsia bainuen, neska pasaporte batekin agertu baino dezente lehenagotik, ezin nintzela atzera bueltatu eta Gerald D-ri esaten hasi: Onik ikusten haut, amigo. Edo: Ezagutu berri diat jatetxe atsegin askoa Borély parketik gertu, goazak. Edo: Ez nian telefonoz deitu behar, bazekiat, baina hipodromorako bi sarrera hartu ditiat bihar arratsalderako...

Gerald D ez zen inozoa eta ez zuen *vendetta* bat obratuko, horixe egia, baina ez horretarako motiborik ez zuelako, baizik neuk ere, nekien guztiari esker, banituelako haren kontra egiteko armak, baita bide-bazter batean harrapatuta hilko banindu ere. Berak irakatsia: badaezpada ere, beti gorde behar dira lagunak, batez ere lagun mine-
nen, kontrako frogak. Ez ninduten garbituko, baina ez gogo faltagatik.

Gutxi-asko, Gerald D-ri adina mugimendu gelditzen zitzaidan niri bion bizitzen xake-jokoan: nire alde neukan parte hartu nuen egintza guztietako informazioa, eta ez zaio kasualitateari egotzi behar gure egoera laburbiltzen duen xakearen irudi ez batere bitxia: Gerald D-k eta nik elkarrekin ikusi genuen Ingmar Bergmanen *Zazpigarren zigilua* Marseillako portutik hurbil zegoen zine-areto batean.

Neska berdez jantziak pasaporte eskaini zidan egunean, erraiak kiskaltzerainoko mina nuen nagusi nire baitan. Monique ikusten nuen lurrean, eta haren odola nire hatzetan, bero eta gorri. Pasaportea jendarmeen lazo bat izan zitekeela pasatu zitzaidan burutik. Prefeturako norbaitek Ventimigliarako bidea erakutsi nahi zidan neskaren bidez. Alde egin nezala Marseillako inguruetatik. Ivreako lagunengana beharbada, aspaldiko nire amets konplitu ezinari pasaporte baten formalismoa emanaz. Baina horixe bera balitz, hain justu, prefeturako jendarmeen asmoa, beren eskuak garbitu eta ni gainetik kentzea, gorotza Italiako karabineroei utzita? Harrapatuko ninduten, eramango ninduten beren kaserna batera, eta bertako buruak irri karkaraka agurtuko ninduen, «ongi etorria, beti hirea ere izan den ostatu honetara», eta

belaunburu baten kolpeak arnasa itoko zidan nire eskuak hankartera eramateko astirik gabe.

Baina buruan nerabilen hura guztia ez zen sinesgarri: ez ziren zortzi ordu ere Monique hil zutela, pasaporte bat ez da inprobisatzen, argazki bat behar da, sinadurak faltsutu...

Pasaporteak Monique hil aurretik egina behar zuen, errekarman eduki zuten gordeta niri inoiz txantajea egiteko prest. Baina zergatik eskaintzen zidaten aukera hura Monique hil berritan? Loturaren bat egon behar zuen bi zirkuntantzien artean, baina harrapatua nengoen hari askoren matzan, hipotesi orori aurkitzen nion ertza.

PASAPORTEAREN LAKIOA ez zen, edonola ere, nire lepoa dotoretzeko zetazko gorbata bat: arnasten nuen airearen hotz gordina sentitzen nuen zintzurrean behera.

Aurrean neukan neskari, ordea, bost axola nire txistua-
ren auziek. Argazkiaren ondoko izen-abizenak irakurri ziz-
kidan ahoskera garbiz:

—Ismael Dampierre. Ohore handia egin dizu Frantziak,
orain frantsesa zara. Ez ahaztu.

Italiatik larga egin nuenetik, frantses itxura ematen saia-
tu nintzen beti, ilusioa egiten zidan jendeak frantsesa nintze-
la pentsatzeak, nahiz nire nostalgiak Italia zuen maite. Une
hartan, ordea, bihotza hutsik sentitzen nuen, odolirik gabe.

Izena errepikatu zuen neskak, gustuko hitz deigarri ba-
ten oihartzuna dastatzen den modura:

—Ismael...

Komikietatik ezagutzen nuen izena eta berrikitan entzuna nuen izen bera Antibesko zine-areto batean ikusitako film batean ere. Bihotza hutsik baina burua burbuila betean, otu zitzaidan izen berria ez zela xaloa, neskak ere ikusia izango zuela balea zuriaren filma, eta gogoan izango zuela gainera Ismael balearen bizkarrean lotuta ageri den eszena.

—Ismael. Zergatik ez Gregory? Gregory Peck? —atera zitzaidan haserrealdi betean.

Hitz egin izanaz damutu nintzen, neskak sorbaldak jaso baitzituen soraio; baina haren ezaxolak baino gehiago bekaiztu ninduen ondorengo hitz-jarioaren tonu harroak:

—Ez dago Biblia bezalakorik izen sinesgarriak asmatzeko orduan. Abrahamek zer izen jarriko Agar neskamearekin munduratutako seme sasikoari, eta Ismael!

Putakumeka ari zitzaidan izenik ere ezagutzen ez nion neska arrandia.

—Bo, ulertu dut... —esan nion bihotz-zulotik burua atera nahian—. Eskaintzen didazun pasaporte honen motiboak asmatzen hasita, izanaren neurriko izena eman nahi dit nigana bidali zaituenak... Ismael. Putakume bat kendu nahi du gainetik; ahal duen urrutien bidali, alegia...

—Ez naiz nor zure uste errotuak eztabaidatzen hasteko... —esan zidan neskak laineza inpostatu batez.

Hizketa modu harroak gogaituta, protestatzeko keinua egin nuen. Alferrik. Neskak tonu berean jarraitu zuen:

—Jakingo duzu, noski, zer esan nahi duen Ismael ize-nak... —Ez zidan betarik eman nire ezjakintasuna nabarmentzeko—: Jainkoa duzu adi-adi!

Niri putakume deitu berri, mehatxuka ari zitzaidan orain: habil tentuz, aspertu gaituk-eta hirekin! Argia zen abisua, adi ibili beharko nuen pasaporte frantsesaren jabe egin eta gero ere. Baina nori egon behar nintzaion adi?

Arretaz begiratu nion neskari. Luzexka zen, argala. Ile hori uhinetan harrotuak areago zurbiltzen zion aurpegi leuna.

Ni, berriz, lasaiago nengoen, ez nuen ezer irabazten neska haserretuta. Berak ez zuen interesik izango egoera hura luzatzeko, ez zen bitartekari bat baino, eta hobe nuen ahalik eta otzanen.

Isiltasun luze baten ondoren, ahoa zabaldu zuen hortze-riaren berezko distira berriro distiratsuago erakutsiz eguzki-galdatan, eta zerbait eskatu zion tabernako atean zegoen gizonari. Ezohiko edari italiar bat zen, oroitzen naiz-eta harritu egin ninduela. Millefiori? Carpano bat, agian? Zerbait zakarra behintzat...

Nik bukatu gabe neukan pastisa. Eguzkiak epelduta zegoen ordurako. Ez nuen beste bat eskatu.

Isilik egin genuen tabernaria itzuli arteko denbora. Neskak trago batez irentsi zuen basokoa eta, protesta egin nuen arren, berak hartu zuen gizonaren hatz-puntek eskaintzen ziguten tiketa.

—Kobratu honen pastisa ere —eta billete bat luzatu zion tabernariari, keinu hotzez eta presati.

Itxurak zioen neskak agudo egingo zuela alde. Pasaportea mahaian utzita noski. Hartu egingo nuen? Arriskuaren kirrinka entzuten nion neskaren mugimendu bakoitzari, hartara jarrita neuzkan kirio guztiak. Eta nik ezin galdetu

nork bidalia zen, zergatik eta norentzat nintzen putakume. Ez zidan erantzungo, ez nuen barregarri geratzeko gogorik.

Ez neukan neskaren aurpegira gehiegi begiratu beharrik: pikabuztan batekin galdutako denboratzat kontabilizatzen zuen nirekin tratatu beharra; pasaportearen entregatuta, bukatua zuen lana. Ez zuen beste nekerik hartuko, ez behintzat izorratu nahi ninduen madarikatuak besterik agindu eta ordaindu ezean. Pasaportearen hurbildu zidan hatz-puntekin bultzatuz mahai-ertzeraino.

Hartu egin nuen.

Bi hegazti, kaio zuri zikina bata eta usapal arrea bestea, pasatu ziren nire begien aurretik. Hegaldi jolastietan zebiltzan nork nori moko ariko balira bezala, bi-biak lirain eta dibertigarri hegaldi ugarien bidegurutzeetan.

Denbora asko pasatu da ordutik, hogeitabat urte bai. Ez zait bi hegaztien hegaldia lausotu, irudi hark orduan bezain bizi segitzen du nire memorian, eta bi hegaztien joan-eto-riak Moniquerekin egindako bizpahiru urteak ekartzen diz-kit gogora.